


ARRASATE



Paristik
datorren...



POXPOLINek
eskaintzen dizu
umeentzako aukerarik
onena eta zabalena
oinetakoetan

Zerkaosteta, 15 Behea
Tfnoa: 79 61 13 ARRASATE



IDIOMASTER

INGELESA - ALEMANA - FRANTSESA - INGELESA - ALEMANA - FRANTSESA

93-94ko IKASTURTEAN

1ST Certificate %100ak gainditua.

Zorionak!

94-95BERRIAK

- Ingelesa 5 urtetik aurrera
- Alemana umeentzat
- Larunbatetan klaseak
- Ikastaro trinkoak Cambridge-eko abenduko azterketetarako (Maila guztiak). Matrikula epea laster itxiko da.

ARRASATEN

Ferrerias 44 behea
Tfnoa/Faxa:790784



GURE IRAKASLEGOA:

ingelesko 6 irakasle
alemaneko 3 irakasle
frantsesko 2 irakasle
itzultzaile sailean 4 profesional

LEGAZPIN

Patricio Etxeberria,7
Tfnoa:731650

Udako joan-etorriak

Modernotasunaren eta oparotasunaren seinalea mugitzea da, gizartea eta mendebaldeko ohituren gainera etorri den moda da, tirania bihurtua. Irtetea da mundu guztiaren obsesioa eta horri uko egiten diotenen edo modurik ez dutenek hustasunaren haginkada sentitzen dute, eta baita gizarteko paria diren inpresioa ere. "Merezi dugu atsedena" esaldiaren atzetik, hor goaz, tropelean, giza-marean, trafiko ke-tsu eta sunsitzailan murgiltzera, paradizu galduaren eta berrituko gaituen atsedena bila.

Herritik irten beharra dugu, ohizko lekua borondatez nahiz borondatearen kontra uztea agintzen dute eta ongizatearen us-tezko kanonek atse-den zoriotsurako ide-al gisa; baina sakon-sakonean, oparotasunaren adierazle edo ondo daudenen zerrendan eta zoriotsu direnen zerrendan gaudela uste izateko ausente sentitzeko behar tran-patia gordetzen da horren atzean.

"Morenotasunak", udan ihes egin izanaren adierazle zaba-zina denez, konfir-matu egiten du

aldibateko ausentzia eta erritu soziala bete egiten da eta ihesaren gupilak aurrera jarraitzen du, ilusiotako atsedena bila.

Hiri eta paisaia monumetaletan zehar bidaia egitea maite dutenak ez dira atzera geratzen; eurek, urgentziaz historia eta pertsonaiei buruzko ezagupenak harrapatzeko tentazio

sanoa izaten dute, eta urgentzia horrek orduen pisua eta nekea sentiarazi egiten du, "oporrak ez dira atsedena hartzeko, nekatzeko baizik" esaten dute eta gidariak karrasi batean. Horixe bakkarik behar genuen! Guk "atseden hartu", "atseden hartu" lemapean irte-tzen dugu eta arrazoi du. Irudiak ikusiz, horizontetara begira, historiako pertsonaiek eta pertsonaiatxoak azale-tik aztertzen gastatzen ditugu oinetako-ak, eta horietako asko memoriaren zo-koetan izkutatuturik egoten dira, eta urte-tako loalditik irartzaten dira, gidaren diskurtso erakargarriekin.

Gaue-tik goizetik, batere eten barik, horrela joaten zaizkie egunak turistek; hasieran irrifartsu, egunaren akabera trazu-zahar eginda. Prezio garesti hori ordaintzen dute udan lagunengandik ihes egiteko modua asmatze-aren eta azkenean, etxera iristen dire-nean, honela esaten dute: azkenean etxean!

**JESUS
LARRAÑAGA.**



• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzazu Loidi. **Kazetariak:** Itxaro Zubillaga, Maider Egües, Maria Agirre. **Publizitatea:** Jaxone Mendizabal eta Ikeme Altube (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain eta Itsaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Blanca Jauregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Inaki Lasa, Xabier Letona, Ihintza, Mikel Olabe, Mari Teré Alonso, Liherr Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kofi, Daniel Gokiolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. Tirada: 5.500. **Legu-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeko kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Onati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Jabier Ozaeta.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du

NAROKI

Liburudenda

Testuliburuak
Ahizke-CIMERako
liburuak

- Ingelesa
- Frantsesa
- Alemana

Eskola
Politeknikorako
liburuak
Eskolarako materiala

Tfnoa: 79 20 47

Memesa


79 42 22



Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du

**GATZAGAN,
ERDI ERDIAN...**

**ZUHAITZ
jatetxea**



**I
R
T
A
B
E
R
N
A**

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11

VE ECUADOR

Bidaiak

Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

**Elektroinjekzio
Zerbitzua**



ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE

•••••
**Saskibaloia eta
Autopista**

EAJk DEBASaren (autopista bultzatzen duen elkartean) bitartez Arrasateko saskibaloia erabiltzen du gure bailarari larriki erasotzen dion proiektu bati buruzko propaganda egiteko.

Euskal Herrian azken hamarkadetan burutu diren naturaren aurkako sarraski izugarriak eta eskrupulurik gabe kapitalistek gure ingurunea sistematikoki suntsitu dutela ikusteak euskal gizarteak ekologiari buruzko sentsibilizazio handia izatea ekarri dute. Zoritxarrez, ingurugiroaren aurka egindako ekintza basatietako batzuk sorturiko ondorioak konponezinak dira; baina ez dira mehatsuak amaitu eta gure ingurunean forma oso zehatza hartzen ari dira.

Ingurua errespetatuko duten bideak eginez gure bailarari kanpoarekiko komunikazio hobea emateko beharra Maltzaga eta Urbinaren artean autopista bat eraikitzeke manipulatu da; autopista horrek, gure arazoak ez konpontzeaz gain, baldintza egokiak sortzen ditu espekulatuzaileak eta politikotestelak aberasteko.

1994ko hau autopistaren aldeko urtea izan da eta bi frentetan oinarritu da:

- Lehenak autopistaren eraikuntzari estaldura demokratikoa eman nahi izan dio Interbentzio Gune Partehartzaileen bidez; horietan hainbat pertsonen bidekomunikazio hoberako aukerei buruz beren iritzia eman

zuten. Zorionez, gure herritarren zentzutasuna nagusitu zen eta, beraz, gehiengoak autopistaren irtenbidea baztertu egin zuen;

- Bigarren frentea EAJren betikoa izan da eta, bide parte hartzaileak porrot egiteko arriskuaren aurrean, aldi honetan EAJko pertsonaia garrantzitsuen adierazpenak nagusitu ziren, horien artean, Roman Sudupe Gipuzkoako Foru Aldundiko Azpiegituretako Diputatua nabarmendu zen, autopistaren eraikuntza erabakita zegoela eta, hiritarrei egindako kontsultak gora-behera, eraiki egingo zela esaten baitzuen publikoki.

Gogora dezagun IGPTan gure bailarako komunikazioa hobetzeko alternatibak aurkeztu zirela. Txostenetako bat, "Urbina-Maltzaga irtenbidea" izenekoa, DEBASA enpresa publikoak aurkeztu zuen; enpresa hori Eusko Jaurlaritzak eta Araba eta Gipuzkoako Foru Aldundiek eratu zuten. DEBASaren planteamenduetan esaten denez, gure inguruneari ez zaio diru publikorik emango komunikabideen hobekuntza finantzatzeko. DEBASaren erabakiteko baieztapenaren arabera, ekonomikoki bideragarri den irtenbide bakarra eraikitzaileek peajearen bidez finantzaturiko autopista da.

Jarrera-hartze hori gora-behera, EAJ, DEBASaren bitartez, kirolaren erabilera higuinagarria egiten ari da, hau da bere alderdiaren interestarako erabiltzen ari da Arrasateko saskibaloit-

dea, balio demokratiko edo ekologikoak zapuztuta.

DEBASak saskibaloitaldearen diru publikoz finantzatzuz, EBA ligan "Urbina-Maltzaga Saskibaloit Taldea" izenarekin aurkeztea eta "Maltzaga-Urbina Irtenbidea" slogana eramatea lortu du. DEBASA (atzetik EAJ dago) kirol erakunde baten egoera larriaz aprobetxatu da gure ingurunerako oso arriskugarria eta guztiontzako zama ekonomikoa den peajedun autopistaren aldeko propaganda egiteko.

ARRASATEKO EGUZKI.

•••••
Bera

AED elkarteak, ikusirik Beran sortutako istiluen ondorioz berak antolatutako zenbait autobusekin zein nahaste sortu den, honako hau adierazi nahi du:

AEDk arrasatearroi zerbitzu bat eskeini guran antolatzen dituela autobus hauek, akordio batetara iritsiz autobus enpresarekin ateratzeko eta itzultzeko ordu zehatzetan. Beraz, eta txoferrek azken Nafarroa Oinezen AEDk izendatutako autobus arduradunek nahi beste denbora ez zutela itxaron nahi izan ikusirik, AEDk neurriak hartuko ditu aurrerantzean autobus enpresarekin horrelako kasu berezietan arduradunek aginpide gehiago izan dezaten txoferrengan. Bide batez, nahiz eta AED erruduna izan ez, egoera latz hartan geratu ziren guztiei barkamena eskatzen die.

AED

CRISTINA GARCIANDIA MUGICA

**Dermatologia • Benereologia
Medikuntza • Kirurgia**

SAN MARTIN OSASUNDEGIA

Ramon M^a Lili, 2 Gral. eskuma BERGARA ☎: 76 59 39

Zer diozu bergizarteratzeaz?



**Amaia Garcia
Langilea
(32 urte)**

Neurri horrekin, presoen kolektiboari eta Euskal Herriari min egiten ari dira.




**Enrike Ituna
Akeiko Langilea
(41 urte)**

Nire ustez ondo dago. Bakea lortzeko balio du.



**Josefa Soriano
Etxekoandrea
(54 urte)**

Ez zait gaizki iruditzen, bakea lortzeko ona da.



**German Sierra
Langabezian
(21 urte)**

Nik ondo ikusten dut, hori da egin beharko litzatekeena. Kontu honetan presoek parte hartu beharko lukete.



**Migel Gerenabarrena
Langilea
(58 urte)**

Asko laguntzen du horrek. Barruan daudenen bizimodu gogorra da, hobeto daude kalean.



**Ino Kabijertua
Jubilatua
(74 urte)**

Preso bakoitza bere etxera etortzea ondo dago; kartzelan egotea gogorra da.



**Arantza Urrutia
Etxekoandrea
(59 urte)**

Ondo dago, hainbeste urte barruan egotea larregizkoa iruditzen zait. Baina horren atzetik zer dagoen...



**Aitor Lodoso
Langabezian
(26 urte)**

Montaje bat da. Preso bakoitzak nahi duena egin dezake eta kalera irtetea erabakitzen badu ondo dago, baina gero hori propaganda bezala erabiltzea...



UNED-BERGARA IKASATETXE ELKARTUA

1994-95 Ikasturterako matrikula epeak

Lehenengo epea: irailaren 15etik urriaren 17ra.

bigarren epea: urriaren 1etik 29ra.

Argibideak: UNED-BERGARA Ikastetxe Elkartuko Idazkaritza. San Martin Agirre enparantza, z/g (69 aptdoa) 20570 BERGARA Tfnoak: (943) 76 13 42 / 76 13 43

Bulego orduak: asteartetik ostiralera: 10,30etatik 12,30etara goizez eta 17,30etatik 20,00etara arratsaldez. Larunbata goizez 9retatik 12etara (urritik aurrera).

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit.79 53 00
 Igalatorioa79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak)79 39 00
 (emakumeak)79 44 11
 Buru osasunerako zentrua79 90 11

Gurutze gorria
 Bergara76 55 76

DYA
 Antzuola76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak)79 13 57
 (Txanda hartzeko)77 03 46
 77 07 21
 Oñati78 08 52
 Eskoriatza79 98 58
 Aretxabaleta79 74 58
 Aramaio(945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulantiak45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati78 04 11
 Bergara76 14 69
 Arrasate79 14 39
 Aretxabaleta79 10 52
 Eskoriatza79 03 22

Ertzaintza
 Arrasate79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua79 20 72
 Zubilagako Eskualde-Parkea78 28 00

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua)79 09 00
 Elektrizitatea (Iberduero)12 01 62
 Gasa900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak79 12 22
 P.E.S.A.79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza79 81 57

Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak79 87 77
 KIUB-OMIC79 51 55
Monterrongo liburutegia
 Monterron77 01 05

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 23
 Egunez eta gauzez: Español. Iturriotz.
Larunbata 24
 Egunez eta gauzez: Corcuera.
 Musakola.
Igandea 25
 Egunez eta gauzez: Irizar. Erquin.
Astelehena 26
 Egunez eta gauzez: Amezua. Sta. Marina
Asteartea 27
 Egunez eta gauzez: Ruiz. Maala.
Asteazkena 28
 Egunez eta gauzez: Morales. San Andres.
Osteguna 29
 Egunez eta gauzez: Azkoaga. Ferrerías.

23 OSTIRALA

ZINEA
 "En el nombre del padre" 7etan eta 10etan.

HITZALDIA
 Andu Lertxurdiren tertulia-aurkezpena: "Otto Pette; nire azken nobelaren inguruan", Oñatiko Kultur Etxean, arratsaldeko 7.30etan.

HITZALDIA
 Gaia: "Simon Arrieta 1915-1969. A los 25 años de su muerte", Hizlaria: Xabier Saez de Gorbea. Bergarako Migel Altuna Institutoko areto nagusian, arratsaldeko 7.30etan

SAN MIGEL JAIK
 Aretxabaletan San Migel jaiak. 5.30etan bonba japoniarren jaurtiketa. 6etan buruhandien kalejira txistulariek lagunduta. 7.30etan kale animazioa Hotz Muga taldearekin. 10etan Loramendi kultur elkaratek antolatuta, Bertso saioa Zaraia zineman. Bertsolariak, Jokin Soroza-bal, Jon Sarasua, Jon Maia eta Igor Elortza. Gai-jartzaila: Jon Iñaki Izarzelai.

24 LARUNBATA

ZINEA
 "Wyatt earp" 6.30etan eta 10etan.

EUSKO ALKARTASUNA
 Eusko Alkartasunaren sorreraren eta alkartetxearen inaugurazioaren urteurrena dela eta; 11etan meza San Frantzisko elizan. 12.30etan ekin-tza politikoa Monterronen, Karlos Garaikoetxea, Inaxio Oliveri eta Julian Irizar etorriko dira. 2.30etan bazkaria Alkartetxean.

SAN MIGEL JAIK
 11etan txalaparta. 11.15etan kalejira Arrasateko gaiteroekin. 12.30etan herri-poteoa. 2.30etan herri-bazkaria. 6etan Loramendi dantza taldearen dantza desberdinak. 7etan "Beinke-Loramendi" dantza kantuauren aurkezpena. 7.30etan Loramendiren lokalaren inaugurazioa. 11etan pilota partiduak. 11etan Maixa eta Itziarrek dantzaldia, Durana kalean. 5etan salda eta txokolatada denontzat.

JOLASAK
 Orkatz Skaut taldeak antolatuta. Arratsaldeko 5etan herriko plazan. 9-14 urte bitarteko neska-mutilentzat.


25 IGANDEA

ZINEA
 "Wyatt Earp" 6.30etan eta 10etan.

MENDI IRTEERA
 Besaide mendi elkaratek antolatuta irteera; Etxalar-Legate-Lekaroz. Irteera: goizeko 7etan Garibaitik.

KALE ANTZERKIA
 AEKK antolatuta "Txis Pun" kale antzerkia Seberon, eguerdiko ordu bata t'erdiretan. Gazta eta sagardoa egongo da denontzat.

SAN MIGEL JAIK
 10.30etan San Migel sari nagusiko XIII. txirrundulari lasterketa 1. eta 2. urteko jubentak. 12etan Aretxabaletako bandarekin kalejira. 1ean bandarekin kontzertua. 4etan II. San Migel Mus Txapelketa, herriko plazan. 6.30etan bandarekin kalejira. 8etan Aldaba taldearekin dantzaldia Durana kalean.



TAILA IKASTAROA
 Aretxabaletako Okila taldeak taila ikastaroa antolatu du. Urriaren 3an hasiko da 6etatik 8etara. 50 orduko ikastaroa hasierako mailatik hasiko da. Izenematea: Atxabaltako Udalean, Kultur-Etxean edo Okilaren tailerlean.

KILOMETROAK
 AEDk urriak 2an Legazpin ospatuko den "Kilometroak" jaira joateko autobus antolatu ditu. Txartelak Hiren, AEDn eta Iturriotzen eros daitezke irailaren 30a baino lehen.

SAN MIGEL JAIK ARETXABALETAN
Ostiralaren 23tik 25a bitartera jaiak Atxabaltan.



26 ASTELEHENA**ZINEA**

"Wyatt Earp" 6.30etan eta 10etan.

GRIPEAREN AURKAKO TXERTOIA

San Andresko alkateztan, eguerdiko 12etatik ordubata arte.

ODOLEMATEA

Odolematea Arrasateko anbulategian, arratsaldeko 4.30etatik 8ak arte.

27 ASTEARTEA**ZINEA**

"Wyatt Earp" 6.30etan eta 10etan.

GRIPEAREN AURKAKO TXERTOIA

Abaroan, eguerdiko 12etatik ordubata arte.

ODOLEMATEA

Odolematea Aretxabaletako osasun zentroan, arratsaldeko 4.30etatik 8ak arte.

IKASLEEN BILERA

Donostiara zein Bilbora egunero joan etorri egin behar duzuenontzat, Aixola taldeak bilera antolatuta du Montterronen arratsaldeko 7etan.

28 ASTEAZKENA**GRIPEAREN AURKAKO TXERTOIA**

Uribarriko jubilatuen etxean, eguerdiko 12etatik ordubata arte.

ERAKUSKETA

Eusko ikaskuntzaren 75. urteurrenaren inguruko erakusketaren inaugurazioa Montterronen, arratsaldeko 7etan.

29 OSTEGUNA**GRIPEAREN AURKAKO TXERTOIA**

Santamainako jubilatuen etxean, eguerdiko 12etatik ordubata arte.

SAN MIGEL JAIK GARAGARTZAN

7etan meza auzoko patroiairen omenez. Ondoren luntxa auzoetxean.

INAUGURAZIOA

ASA argazki taldearen lokal berria arratsaldeko 7etan inauguratuko da.

ELKARRIREN HITZALDIA

Bake topaketa programaren inguruko hitzaldia. Hizlaria Jonan Fernandez. Montterronen 7etan.

EUSKADI-GAZTEA MAKETA LEHIAKETA

Euskal Herriko talde eta bakarlari guztiek parte hartu ahal izango dute. Beharrezkoa izango da gutxienez hiru kanta jasotzen dituen zinta bat bidaltzea. Maketak ez dira itzuliko. Zintak, beharrezko zehaztasunez urriaren 30a aurretik bidali beharko dira antolakuntzara. Bi sari eskainiko dira dirutan: lehen 600.000 pezetakoa, bigarrena 250.000 pezetakoa. Bidaltzeko helbidea: "Euskadi gaztea" IV. maketa-lehiaketa, Euskadi Irratia, 1-1 goa. 20.006 Donostia.

**ERDU-AEK EUSKALTEGIA**

Erdu-AEK euskaltegiak matrikula epea zabaldu du. Maila guztiak, alfabetatze eta EGA. 2, 3 eta 5 orduko erritmoak. Ordu-tegi guztiak: goizez, arratsaldez eta gaez. Informazio gehiago jasotzeko edota matrikulatzeko AEKko bulegoetatik pasa daiteke; Garibai etorbidea 14, 3. solairua, edota 770369 zenbakira dei egin.

IHES EKIMENAREN ZOZKETA

IHES-Ekimenak atera dituen errefin zenbaki irabazlea ATBko ostiraleko albistegian emango da jakitera. 8etan, 8.30etan eta 9etan ATBko albistegian zenbaki sarituen berri jakiteko aukera izango dugu.

INAUGURAZIOA

ASA taldeak lokal berria inauguratuko du irailaren 29an, 7etan. Lokala Erguin kaleko 19an dago, tailaginen elkarte eta Irratizaleen lokala dagoen tokian.

**INGELES IKASTAROAK**

Hasierako maila. Iraupena: 100 ordu, dohainik. Izenematea: langile komisiotako lokalean edo 79 52 60 zenbakira dei eginez. Ikastaroa urriaren 3an hasiko da.

FAMILI ETA GIZARTE HEZIKETARAKO ZENTRUA

Izen emateko epea zabaldu du. Ordu-tegia 4etatik 8etara. Bestalde, irailaren 28an bilera izango da zentruko lokaletan, arratsaldeko 4etan.

HELDUEN HEZIKETA ZENTROA

Arrasateko Helduen Heziketa Iraunkorrerako zentruak 94-95 ikasturterako matrikula epea zabalik du. Matrikula ikastetxean bertan egin daiteke, Ferrerias kalea 28 behean. Egunero bi orduko klaseak izango dira, goizez, arratsaldez edo gaez. Euskaraz nahiz gaztekeraz ikasteko aukera izango da.

UDAL EUSKALTEGIA

Udal euskaltegiak matrikula epea zabaldu du. Maila guztiak: euskalduntze, alfabetatze eta EGA. 2, 3, 4 eta 5 orduko erritmoak, enpresentzat ikastaroak. Ordu-tegi guztiak: goizez, arratsaldez eta gaez. Informazio gehiago nahi izan ezker, 797077 edo 797788 zenbakietara dei egin.

“Kubak jasaten duen egoera ekonomikoa ez da erraza. Etengabe dihardute beraiek; ‘no es fácil compañero-a, no es fácil’. URSS erori zenetik EEBBek ezarritako blokeoaren eragina gogor nabari da. Garraioak estu eta larri dabilta; jatekoa berriz, goserik ez badago ere, ez da ugaria eta orokorrean eskasia da nabari. Egoera larriari aurre egiteko dolarraren liberalizazioa ekin behar izan diote eta honek arrisku biziak dakartza. ‘No es fácil compañero-a, no es fácil’. Baina guztien gain, gure esatera zaharra erabiliz, ‘hodei guztien azpitik, sasi guztien gainetik’ aurrera jarraitzen dute eta nola. Hori duk-n martxa; hori duk-n bizipoza, hori duk-n dantza egitea. Kubatar gehienek, kexa ugari bota arren, harro bizi dute iraultza, harro dira EEBBei aurre egiten dion munduko nazio bakarra jirelako, eta somatu genuenez, ez dute amore emateko asmorik.

Askoren kexak entzun ondoren, hauxe da atera duguna, Kuban datza munduaren itxaropena. Asko da handik ikas dezakeguna eta bestaldetik gure laguntzaren zain daude”.

Arrasateko Brigada Manolo Cabeza Bolok Egunkaria

“Oso erraza egiten zait ardiak ezagutzea. Hala ez dela pentsatu arren, ardiak pertsonok bezalakoak dira, ez daude bi aurpegi berdin (...) Lantegietarako alde egin zuten artzaiak egoera txarra dela eta itzultzen hasi diren arren, iharduera hau gutxituz joango da, gazteak ez daude horretarako eta. (...)

Abandonatutako txakurrak dira gure etsairik handienak, gosearen eraginez basati bihurtzen dira eta azkenean ardiei eraso egiten diete. (...)


Mendian zehar bakarrik ibiltzea gustatzen zait. Isiltasunak badu bere xarma, baina batzuetan jendearekin tertuliatxoren bat egitea faltan botatzen dut. Izan ere, gero eta mendizale gutxiago ikusten da Gipuzkoako mendi magaletan zehar. Bakarrik geratzen ari gara...”

Jesus Mari Plazaolak 94-9-17

EL DIARIO VASCO

Zein da Orkatz Skaut taldearen lana?

Taldeak azkenaldian gain-behera bizi du, batez ere azken urtetan herrian talde asko sortu direlako eta horietako askok gainera, aisialdiari begira antolatzen dituzte ekintzak. Eskaintza handitze horrek eraginda eta taldean arduradun gutxi geratu direlako, ekintzak antolatzeko motibazio gutxiarekin ibili gara. Baina horrek ez du esan nahi taldea hilda dagoenik, aurrera jarraitzea da asmoa. Gure ustez, oraindik ere herri mailan egin daitezke gazuzak.



Joseba Maidagan
Orkatz Skaut taldeko arduraduna.

Skaut taldeko partaideak izateak heziketa prozesuan murgiltzea esan nahi du. Taldeko txikienak zortzi-bederatzi urtekoak dira eta hasieran adin horretakoek ekintzetan parte hartzen dute baina horiek helduaz doazen ahala erantzukizun handiagoa hartuaz joaten dira arduradun bihurtu arte. Beraz, taldearen barruan etapa desberdinak bizi izaten dira. Parte hartzetik antolatzaile eta arduradun izatera pasatzeko aukera ematen du taldeak.

Gure ustez, Orkatz taldeak urtetan egin duen lanak garrantzi handia izan du herrian. Hainbat lagun talde Orkatzen bidez eratu da eta orain baino aukera gutxiago izan direnean, gazteen aisialdia betetzeaz arduratu den taldea izan da.

Esan bezala, ez dugu talde bezala desagertu nahi, horretatik, inoiz baino lehen ikastetxez ikastetxe haurrengana hurbiltzen hasi gara. Orkatz taldean denetik egiten da: jolasak, irteerak, akanpada, jolasak...Jendea ezagutu eta jokaera pasiboaz bukatzeko era bat, Orkatz taldean sartzea da. Asteburu honetarako ekintza batzuk antolatu ditugu, ea haur asko hurbildu eta taldeak indarra hartzen duen.



**Magisterio eskola honek zera jakinarazten du:
1994-95 IKASTURTERAKO
MATRIKULA ZABALIK DAGOELA.**

Espezialitateak:

- Haur Hezkuntza
- Atzerriko Hizkuntza: Ingelesa
- Bigarren Diplomatura (arratsaldez)
- Atzerriko Hizkuntza: Ingelesa.

Informazioa:

IRAKASLE ESKOLA Tfnoa: (943) 71 41 57
20540 ESKORATZA (GIPUZKOA)



Kalitate gorena leihoetan

LANTEGIA ETA ERAKUSKETA:

Kataide Poligonoa, 4. Pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE

Besaide eguna

Joan den domekan Besaide eguna ospatu zen mendietan hil diren euskal mendizaleen oroimenez. Joan den urteko irailetik aurtengo irailera bitartean, 12 euskal mendizale hil dira tontorra lortzeko ahaleginean. Horien artean, Iban Learreta, mendizale mondrautarra. Bizkaia, Araba eta Gipuzkoak bat egiten duten eremura mila mendizale inguru hurbildu ziren. Ekintzak goizean zehar egin ziren, txalaparta, meza nagusia eta bertsolariak besteak beste.

Ardi txakur txapelketa

Nazioarteko Ardi Txakurren 35. txapelketa egin zen igandean Oñatiko Santa Luzia zelaian. Jose Mari Plazaola eta "Nere" 3. proban deskalkifikatu zituzten, txakurrak ardiei haginka egin zielako. Udalakoak ezin izan zuen hainbeste desiatzen zuen txapela irabazi baina 4. postua lortu zuen hala ere. Guztira 11 ardi txakurrek parte hartu zuten eta lehiaketa emozioz beterikoa izan zen.



Presoen aldeko gose greba

Preso daudenei elkartasuna adierazteko eta horien esku-bideak bete daitezela eskatzeko, astebeteko gose greba hasi zuten igande arratsaldean Arrasateko sei lagunek Frantziskotarren lokaletan. Euskal Herri guztian zehar 105 herritan daude barau egiten, guztira 630 lagun inguru. Larunbatean amaituko da ekintza, arratsaldeko 8ak aldera. Aste guztian zehar, gainera, ohizko enkarteladak egin dira Portaloian.

Onaindia Arrasaten

Mario Onaindia, Eusko Legebiltzarrerako alderdi sozialistaren Gipuzkoako zerrendetan lehena dena, Arrasaten izan zen ostiralean. Onaindiak hitzaldia eman zuen alderdi sozialistaren egoitzan, alderdiak hauteskundeetan jarraituko duen estrategia zein den azaltzeko. Datozen hauteskundeetan zer gertatuko den jakiterik ez dagoela adierazi zuen, bere

ustez inkognita izango dira.

Gripearen aurka

Astelehenean hasi zen gripearen aurkako txertoa hartzeko kanpaina. Euskal Autonomi Elkartetik, gure eskualdea da txertaketarik gehien egiten den eskualdea. Txertoa anbulategian har daiteke, baina erizainak auzoetara ere joango dira txertoa ipintzera.

JAIOTZAK

- Jon Madinabeitia Errasti. Abuztuaren 2an.
- Alasne Salterain Arana. 5ean.
- Ainhoa Lizarralde Igartua. 5ean.
- Eider Ros Rogales. 8an.
- Garazi Nogeiras Ruiz de Azua. 9an.
- Ander Murua Uribe-etxebarria. 10ean.
- Danel Garcia Gutierrez. 15ean.
- Julen Madinabeitia Serrato. 15ean.
- Ander Garai Urzelai. 16an.
- Garazi Azkarate Arrizabalaga. 23an.

EZKONTZAK

- Benigno Guillermo Carmona Pavo & Ines Murillo Romero. Elizaz. Uztailaren 23an.
- Jon Andoni Ruiz de Azua Galdos & Miren Gurutze Larrinaga Urzelai. Elizaz. Uztailaren 23an.
- Francisco Jabier Balanzategi Landa & Nuria Egido Navarro. Elizaz. Uztailaren 23an.
- Juan Francisco Ezkerra Larraza & Maria Dolores Uribe Gastañaga. Elizaz. Uztailaren 30ean.

HILDAKOAK

- Manuel Aparicio Quiterio. Abuztuaren 6an. 74 urte.
- Sabina Alzelay Anduaga. Abuztuaren 9an. 87 urte.
- Purificación Urbesalgo Saloña. Abuztuaren 11ean. 79 urte.
- Ezequiel Aranzabal Telleria. Abuztuaren 12an. 80 urte.
- Esteban Jauristi Aranburu. Abuztuaren 14an. 79 urte.
- Pilar Oñate Marcilla. Abuztuaren 12an. 84 urte.
- Irene Villar Galdos. Abuztuaren 16an. 85 urte.



URONDO
elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa
Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76
ARRASATE



* MIKEL IRIZAR

Irlanda eta gu

Espero zitekeen bezala, Downing Streeteko Agiriak lehenengo eta IRaren suetenak ondoren, oihartzun handia izan dute gure artean. Baina ez zen halabarrezkoa agertu diren iritzi gehienak hain sektarioak eta pelagrinoak izatea. Hango eta hemengo xehetasun ondo aukeratuak konparatuz, batzuk atera ahal izan dute gureak ez duela harekin inongo zerikusirik eta besteek, aldiz, arazoak berdina direla eta formula berak balioko duela hemen ere.

Nik ez dakit ETak zenbateraino duen IRaren antziki, ez eta Irlandaren historia eta Euskal Herriaren oso ezberdinak diren ala ez. Era berean, ez dit bat ere axola Gerry Adams Jon Idigoras baino guapoagoa ote den edo-

ta lehia horretan Floren Aoi-zek irabazteko aukera gehiago izango lukeen.

Irlandako esperientziatik ondorio bat atera daiteke dagoeneko, oso oinarritzkoa bestalde: arazo handiak konponbidean sartzeko borondatea eta ausardia behar direla, are gehiago arazoa aspaldiko

.....
*“arazo handiak
 konponbidean
 sartzeko
 borondatea eta
 ausardia behar
 dira, are gehiago
 arazoa
 aspaldikoa eta
 mingarria bada”*

dikoa eta mingarria bada. Eta gurean bai borondatea eta bai ausardia urriak direla uste dut, oso urriak.

Zer egin? Bidea errazteko sortzen ari diren ahaleginak indartu. Zenbaitek esango du ez dagoela baldintza objetiborik bakerako, eta egia da. Baina orduan baldintza objetiboak sortu egin behar dira, behar den tokian eta behar den heinean indarra eginaz. Irlandan ere ezinezkoa zirudien baina asmatu dute.

Elkarri ari da ahalegin sendo bat prestatzen: abenduan egingo den Bake Konferentziarena. Eta nik nire laguntza ematea erabaki dut. Ahaleginak merezi duelako. Helburuak -bakeak- zer esanik ez. Eta, zer arraio! Irlandak sekulako inbidia ematen didalako.

USTEAK USTE

BERDEZ ETA BURDINA

Bai, berdez eta burdinak inguratzen du San Juan Bataiatzailea parrokiaren teilatu berria. Ez naiz eraikuntza teknika, egitura edota zaharberitze prozesuetan aditua, baina begibistan da teilatuari sorreran zuen antzerako itxura ematearen asmoa kolokan jarri dela. Diru arazoaren edota obraren burutzapen efikazaren ondorioz teilatuaren egitura euslea burdinaz eta berdez, gainera, egin behar izan denik ez dut uste eztabaida honetara ekarri beharko genukeenik. Izan ere eraikuntza gotikoek burdina XX. mendean ezagutuko baitzuten. Antzinako eraikuntzak gaur eguneko baliabideak erabiliz egokitu ezin daitezkeenik ere ez dut eman gura aditzera; aitzitik, hauek aplikatzeak eskainiko dituzten abantailak kontaezinak izango dira. Baina diru aurrezpen eta egituraren izenean hartutako neurriak estaltzeko teknologia berriak aplikatzea eskatuko nuke edota, bestela, betiko erremedioaz baliatzea, “disimulua”. Arduratu egiten nau, andamioak kendu ahala gehiago, teilatu berriaren ertzak berdez agertzea. Berdeak sikiera urteen puruz hodian kobre erdoilduarekin bat egingo du. Lerro hauen bidez inguruko zuhaitzen moztea ez da aldarrikatu gura.

**TXOKO
TABERNA**
Gure berezitasunak
pintxo eta
mokau gozoak

Txitxinpe
Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak
Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

beatriz
oinetakoak eta
poltsak
Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE

Altzariak
Diseinua
Apainketa
**M
ARENAZA**
Bizkai, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07



Anbulategian ginekologia saileko eskaria urtetik urtera igoaz doa.

Ginekologian eskariak gora egin du ambulategian

Joakin Astola, ginekologi saileko zuzendariaren esanetan "gero eta emakume gehiagok eskatzen dute ginekologi sailerako zerbitzua. Eskualde honetako emakumeek gero eta garrantzia handiagoa ematen diete ginekologi azteketak egiteari". Joan den urteaz konparatuta, ginekologi sailaren eskaria %7,6 hazi da ambulategian. Iazko ekainera arte 5.304 lagun pasa ziren ginekologi kontsultatik eta aurtengo ekainerarte, berriz, 5.706 lagun.

Azkenaldian kexa batzuk jaso ditugu Arrasate Pressen, ginekologi sailean txandak berandu ematen dituztela esanez. Astolaren esanetan, beste toki batzuekin konparatuta, ambulategian askoz ere lehenago ematen dira txandak.

Kasuak duen garrantziaren arabera, hiru epealdi desberdinetan ematen dira txandak. Berrikusketa baino ez denean, bi hilabete-tako epean ematen dute txanda eta kasuak hainbeste itxaron ezin duenean hamar egunetako epean. Bestalde, kasua urgentziakoa izan ezker, segituan atenditzen dute. Baina sail horrek gora egin duen bezala, beste

sail batzuetako eskaria jeitsi egin da. Urte-tik urtera haur gutxiago jaiotzen denez, pediatria sailaren eskaria, adibidez, asko jeitsi da. Gero eta pertsona nagusi gehiago dagoenez, berriz, oftalmologia sailak gora egin du eta 12 espezialitatetik eskari gehien duena da. German To Santos zuzendari medikuaren ustez, pertsona nagusiek zerikusia duten sailak indarra hartuz joango dira datozen urtetan ere.

ERAIKIN BERRIA

Obra baimenak aurrera badoaz, urriaren erdi inguruan hasiko dira aparkalekua dagoen tokian eraikin berria egiten. Zuzendari nagusiak azaldu digunez: "eraikin berriaz ospitale modernoa izango dugu, toki gehiagore ere bai eta gaisoa erosoago sentituko da". Gainera ospital berriaz, etxez-etxeko zerbitzua jarriko dute. Era horretan, gaisotasun kronikoa dutenei edo ebakuntza izandakoei medikua eta erizaina etxera hurbilduko zaizkie. Zerbitzu horren helburua gaisoa ospitalean ahal den eta denbora gutxien egotea da.

Kirola Euskaraz

- Kirolean ere euskararen erabilpena bultzatzeko,
- Deba Bailarako Udaletako euskara zerbitzuek kanpaina iraunkorra prestatu dute gabonak bitartean. Ekimen hori orain dela bi urte hasi zen eta epe horretan hainbat ikastaro antolatu eta kirol ezberdinei buruzko material idatzia argitaratu dute. Rugby-a, atletismoa, boleibola eta antzeko kirolen araudi eta hizkuntza landu da euskaraz.

Erreka Garbitzen

Uztaila erdialderako Deba erreka Aretxabaletatik pasatzen den zatia garbitu ondoren, Arrasateko zatia garbitzen hasi zen langile talde bat eta oraindik ere lan horretan jarraitzen dute. Uztailan 500 m. garbitu zituzten eta guztira 412 zabor - poltsa bete zituzten, 5.000 kilo zabor. Gainera, sasiak kentzeko 24 sute egin zituzten eta 45 enbor ere erretiratu ziren. Abuztuan zehar, kilometroa eta 100 m. garbitu zituzten eta 724 zabor poltsa bete, beraz, 8.700 kilo zabor batu ziren. Horretaz gain 24 sute egin eta 45 enbor batu ziren. Eusko Jaurlaritzaren ekimenez, EAeko ibaiak garbitzen ari dira zenbait langile eta arduradunaren esanetan Deba ibaiak da Euskadi osoan gehien kostatzen ari zaiena. Arrasateko zatia garbitzea ere, uste baino gehiago kostatzen ari zaie.

ITSASKI
ARRANDEGIA

Arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
Setatik 8etara

Tfnoa: 79 26 99



PEÑAKOBA

Zarugalde, 46
Tfnoa: 79 29 93
ARRASATE
Lizaur Arkitektoa
Tfnoa: 78 05 60
ONATI





Exezarreta inguruan dagoen landaretza zaintzea eskatu zaio Jaurlaritzari.

Maltzaga-Urbina zirriborroaren inguruan iritzi desberdinak

Maltzaga-Urbina autopista proiektua egitean, ingurugiroari dagokionez kontutan izan beharko lituzkeen funtsezko tokiak zeintzuk diren jakinarazi dio, Udaleko Hirigintza, Obra eta Ingurugiro batzordeak Eusko Jaurlaritzari. Batzorde horren ustez, Musakola auzoan dagoen "Etexzarreta" parajearen inguruetan dagoen lorategia, inguruko hariztiak, Deba Ibaiaren ibilgua eta San Prudentzioko bidezubia eduki beharko lirakeke kontutan. Horretaz gain, Epeleko errepidea eta Bergarako Autobiaren arteko lotura-pasabiderako zubia egitea eta San Josepeko harrobi ondoko tunelaren irteera aztertzea ere eskatzen da. Eusko Jaurlaritzak "Maltzaga-Urbina autopista" izeneko zirriborroa bidali zuen udal desberdinetara,

proiektua aztertu eta alegazioak aurkez dituzaten.

Baina alegazioak bakarrik ez, hirigintzaren proposamen horiek aztertzean, gobernu batzordea osotzen duten hiru alderdi desberdinek (EAJk, HBk eta EAK) azaldu zuten iritzia ere bidaliko zaio Jaurlaritzari. Herri Batasunak salatu duenez, Jaurlaritzak aurkeztutako proiektua 91n egindakoa da, beraz IGPTako emaitza ez da kontutan izan. HBren ustez Jaurlaritzak autopista eginez IGPEk erabakitakoaren aurkakoa egin nahi du. EAJ alderdiaren iritziak, berriz, Jaurlaritzak, oraingoz, kontsulta baino ez du egin; hala ere irtenbide bakarra errepide azkarra, autopista, egitea dela uste du. EA azkenik, autopista beharrean autobia egitearen alde azaldu zen.

Arrisku Soldata

- Zazpi enpresa-proiektu
- aurkeztu dira Udalean
- arrisku soldata programak
- eskeintzen duen laguntza
- jasotzeko. Bata kulturaren
- gestiora zuzendua,
- bigarrena iturgintz tailerra,
- aperitiboen banaketara
- zuzendutako zerbitzua, 3.
- adineko pertsonendako
- eguneko zentrua, pertsona
- ezinduen garraiora
- zuzendutako zerbitzua,
- pertsona ezinduen
- ekintzetarako beste eta
- azkenik, zerbitzu
- informatikoen enpresa.
- Proiektu guzti horietatik
- udalak bi aukeratuko ditu,
- iazko kopuruaren erdia.

Enplegua sustatzera zuzendutako programaren barruan, Diputazioak zazpi kontratazio egiteko aukera eman dio aurtun Arrasateko Udalari eta horietako bi arrisku soldatara zuzenduko dira.

Udalak sei hilabetetan zehar programaren partaidetarikoa bati soldata ordainduko dio. Aukeraketa kontsulting profesional baten laguntzaz egingo da eta urriaren lehen hamabostaldian emango da ezagutzera erabakia.

 **CIM**
HIZKUNTZAK-IDIOMAS

ALEMANA

Ezkaintza berria
Jatorrizko irakasleak
Prezio bereziak
Informa zaitez!

AHIZKE S. KOOP

Araba etorbidea, 4 20500 ARRASATE ☎ 79 03 12

AHIZKE S. KOOP

Olakua, 14 20560 OÑATI ☎ 71 60 00



Plana 96an jarriko da indarrean eta 2.004 urtera arte balioko du.

Plan orokorraren aurrerapena egina dago

Dagoeneko egina dauka plan orokorraren aurrerapena Udaleko Hirigintza sailak. Plan horretan, etorkizuneko Arrasate zelakoa izango den aztertzen da. Plana 1996an onartuko da behin-betirako eta zortzi urterako balioko du, beraz 2.004 urteraino egongo da indarrean. 2.004. urteraino Arrasatek izango duen biztanleria kopurua 25.078 lagunetakoa izango dela aurrikusiz egin da plan hori.

Etxebizitzetegi dagokionez, 2.004. urterako 9.366 etxebizitza izango dira, beraz 1159 etxebizitza gehiago eraikiko lirateke. Lursail industrialean ez da gehikuntzarik aurrakusten, 1.500.000 m²tan geratuko litzateke eta eskolarako lursailaz ere berdina gertatuko litzateke, 58.455 m²tan. Kirol lurzoruaren eta toki berdeen handitzea, berriz,

jasotzen da, lehena 93.900 m²tan utziaz eta bigarrena, 236.518 m²tan. Plan horretan azkenik, aparkaleku gehiago egitea aipatzen da, guztira 9.115 aparkaleku publiko eta 7.278 pribatu izango genituzkelarik eta gainera, alde zaharra berriztatzeke nahia ere jasotzen da. Plan hori iraileko plenotik pasako da lehenik, baina plenoak begiratu bat baino ez dio emango. Ondoren, urritik azarora arte iradokizunak egiteko aukera izango dute hala nahi duten herritar guztiek. Horren ostean, herritarren aholkuak aztertu egingo ditu hirigintzak eta berriz ere plana osotu. Behin behineko plan horrekin, herritarrek ostera ere parte hartzeke aukera izango dute eta azkenik plenoak onartu egin beharko du. Hala ere, azken hitza Diputazioak dauka eta 96ko irailean emango du bere iritzia.

3. graduari planto

Irailaren 14az gero, Mikel Beitia intsumisioa ez da Martuteneko kartzelara joan. Abuztuaren 16an kartzelan sartu zuten eta hamaika egunetara 3. gradua eman zioten, beraz Beitia lo egitera bakarrik joaten zen. Martutenera joan ez den egun hauetan zehar intsumisioa ez dute atxilotu, Arrasateko Ertzantzara ez da eta hori eskatzen duen agindurik iritsi. Asteazkenean intsumisioaren eguna aurkezteko Donostian egin zen prentsaurrean, publikoki azaldu zuen bere jarrera.

Epaitegiko galerak

1.483.000 ptako galerak eragin ditu irailaren 29an herriko epaitegiaren aurka egin zen erasoak.

Laguntza

Udalak ikasten ari diren sei preso arrasatearrentzat 120.000 ptako dirulaguntza ematea erabaki du Udalak. Diru horrekin UNEDen bidez ikasten dauden presoek liburuak erosteko aukera izango dute.



ARRASATEKO UDALA

Lanpostuak

Arrasateko Udalak bi lanpostu finko hauek bete nahi ditu:

- **Administrari laguntzailea**
- **Gidaria**

Informazioa eta hautes-prozesuaren oinarriak Udaletxean jaso daitezke. Instantziak aurkezteko epea urriaren 11n bukatuko da.

Arrasateko margo taldean dabiltzan 9 lagun, pintura ikastaro berezia egiteko asmoz Zumaiaiko Ignazio Zuloaga museoa egon ziren udan. Ikastaroa Julian Ugarte pintoreak eman zuen. Argazkian eskerretik eskumara: **Maribel, Gurutze, Eneritz, Julian Ugarte** (irakaslea), **Kontxita, Feli** eta **Manolo**.



Argazkian ageri dena zein mendi punta den? San Donatoko tontorra da eta bertan ageri direnak Orkatz Skout taldekoak dira. Nafarroako Arbizu herrian izan ziren talde honetako 35 partaide, mendi irteerak, jokuak... denetik egin zuten eta ederto pasatu ere bai.

GORKA
 ILEAPAINDEGIA
 SOLARIUMA
 Ferrerías, 35 ARRASATE
 Tfnoa: 77 13 78

PEUGEOT
 Salmenta eta zerbitzua
IBABE GARAJEA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
 Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

“PAL”
 burdindegia,
 brikolage
 eta tresneria
 Uribarri etorbidea 3,
 Tfnoa: 79 31 99



SUDC taldeko delegatu eta laguntzaileak Errioxako La Bastida herrira joan ziren irailaren 10ean. Helburua sekulako parranda egitea zen eta, esan digutenez, primeran pasatu zuten. Goizeko 10etan irten zuten Arrasateetik 43 lagunek. 12etan La Bastidako fron-

toian palaz partidua jokatu zuten eta ondoren El Ciegora joan ziren bazkaldu eta festa giroan eguna igarotzeko.

Ezkerretik eskumara: **Unamuno, Iturbe, Txispas, Gautxori, Langaran, Ormaetxea, Maño** eta **Camacho**.

IZEN PROPIOAK

● Arrasateko ikastetxe batzutan zuzendaritza taldean aldaketak izan dira. San Andres eskolan: Zuzendaria **Xabier Arruti**, ikasketa-burua **Nati Zugasti** eta idazkaria **Begoña Garmendia**. Erguiengo eskolan: Zuzendaria **Arantxa Mandazozketa**, ikasketa-burua **Josune Etxabe** eta idazkaria **Danel Mendizabal**. Musakolako eskolan: Zuzendaria **Maite Agirrezabalaga**; ikasketa-burua **Kontxi Urrutia** eta idazkaria **Julia Monje**.

● **Joxe Aranzabal**, 41 urteko arrasatearra, SNDren diseinu mintegian parte hartzeko Ipar Amerikako "Kansas" hirira joango da urriaren 8tik 17ra bitartean. Joxe Nafarroako unibertsitatearen bitartez doa Kansarera eta SNDren mintegietan parte hartzen duen 5. urtea da aurtengoa.

"Diez Minutos"aldizkarian Juan Leibar arrasatearrak bidalitako aholku bat irakurri ahal izan dugu. Honela zioen: "mutilek ere belarritakoa eramatea hain modan dagoenez, belarrian zuloa minik barik egiteko sistema zahar baten berri eman behar dizuet. Bi patata-atalen artean orratzarekin estututa zulatzen da. Ez du minik ematen eta ez du odolirik irteten".

teko sistema zahar baten berri eman behar dizuet. Bi patata-atalen artean orratzarekin estututa zulatzen da. Ez du minik ematen eta ez du odolirik irteten".

Aurreko zenbakian egin genituen akats batzuk zuzendu behar ditugu. Edurne Larrañagak eta Andoni Uribarren-Iturrietak urrezko eztaiak bete zituzten irailaren 10ean. Bikotea duela 50 urte, Aramaioko San Martin elizan ezkondu zen.

DIEZ MINUTOS

SORTU
INFORMATIKA, S.L.

INFORMATIKA ZERBITZUAK

LORAMENDI, 7 BEHEA ARRASATE, ☎ 77 12 33

- NEURRIRA EGINDAKO PROGRAMAZIOA
- EKIPAMENDU INFORMATIKOA
- ZERBITZU TEKNIKOA

comercial
san juan

Garibai, 12
Tfnoa: 79 13 05

hikein
MARKO-JARTZEAK

Zerkaosteta, 4
Tfnoa: 79 13 84

ZAILDU EZAIGUZU



**"DISEINU ESCLUSIBO ETA
KALITATE BIKAINAZKO
BETAURREKOEN BILA NABIL"**


MULTIOPTICASen Sara eta Berto
eustura esklusibook

**"GARANTIA OSOA
ESKATZEN DUT"**

MULTIOPTICASen garantia
txartelak EUROPAko
3000 optiketan balio ditu.

**"ETA PREZIO ONA,
JAKINA"**

2.850 pta. bakarrik.




J. LARRAÑAGA OPTIKAN ERRAZTUKO DIZUGU

2.850 pta.!



Ibargaray, 16 - BERGARA
J. Carlos Guerra, 1 - ARRASATE
J. M. Baradiaran Enparantza, s/n - ORDIZIA



ARCO

POSTAL LEHIAKETA

Aurtengo postal lehiaketan
bitxi eta originalena
Andoni Iñurritegik
bidalitakoa izan da.
Horregatik, 2 lagunentzako
afari bikaina irabazi du.

**Zorionak
eta
on egin!!**

**Agustin Markaide,
Eroskiko Zuzendariorde
Nagusia**

“Arrasateko Maxi-a txiki geratzen ari zaigu”

Aurten Eroski kooperatibak 25 urte bete dituela aitzaki harturik, talde honetako zuzendariordearekin, Agustin Markaiderekin hitzegiteko aukera izan dugu. Eta bide batez, Markaide arrasatearra dela aprobeztatuz, Arrasateko Maxi-a eta bere etorkizuna hizpide izan ditugu beste hainbat gairen artean.

- Zer azpimarratuko zenuke Eroskiren 25 urtetako ihardunetik?

- Hazkundera eta eraldakuntza izango lirateke, urte guzti hauetako iharduera laburtuko luketen hitzak. Bederatzi kooperatiba txikiren baturatik jaio ginen eta ordutik, zeharo hazi da Eroski. Jaio zenean enpresa txikia zen eta orain, Euskal Herriko bigarren handiena da. Kontsumitzaileari zuzendutako kooperatiba bezala jaio ginen eta hortan ez gara aldatu baina supermerkatuetatik hipermerkatuak eta Merkatal Zentralea zabaltzera pasatu gara.

- Arrasateko zenbaterainoko garrantzia izan du?

- Eroski kooperatiba Arrasaten sortu zen, lehen bilera bertan egin zen eta “San Jose” kooperatiba izan zen batu zen horietako bat. Horrek zerbait adierazten du: Arrasaten oinarriak ipini ziren.

- Hasierako urteak alde batera utziaz eta Arrasaten zentratuz, Maxiarekin bete dira hasieran zenituzten asmoak?

- Aurrerapausu bat eman beharra zegoelako jarri genuen Maxi. Uribe auzoko supermerkatuak muga batzuk zituen, ez zen gai Arrasatek zituen beharrei erantzuteko. Guzti hori gaintzeko zabaldu genuen Maxi eta orduan genituen asmoak zeharo bete direla esan dezaket orain. Joan den urtean, 730.000 erosle izan zituen Arrasateko Maxiak. Aurrikuspenak zelan bete diren ikusita, orain zerbait gehiagoren beharrean gaude.

- Beraz, Maxi-a txiki geratu da?


- Txiki geratzen ari zaigu. Hori dela eta, gustatuko litzaiguke Arrasate eta ingururako pausu bat gehiago ematea. Oraingo aukerak aztertzen ari gara, daukaguna handitzea edo beste bat jartzea pentsatzen ari gara.

- Hala ere, jendea oraindik Gasteiza joaten da erosketak egitera.

- Maxi-aren helburua ez da erosleen behar guztiak betetzea. Oinarriko beharrei erantzuteko dago, elikaduran oinarritzen da. Jendea ez da Gasteiza joaten janaria erostera, beste gauza batzuen bila

- Hala ere, jendea oraindik Gasteiza joaten da erosketak egitera.

- Maxi-aren helburua ez da erosleen behar guztiak betetzea. Oinarriko beharrei erantzuteko dago, elikaduran oinarritzen da. Jendea ez da Gasteiza joaten janaria erostera, beste gauza batzuen bila



hurbiltzen da. Erosketak ez dira egiten beharra dagoelako bakarrik, atzean solasaldirako nahia ere egoten da eta horretan Arrasatek eta Maxiak beren mugak dituzte.

- Proiektu berri horiek aurrera eramateak lanpostuak sortuko ditu?

-Azken urtetan lanpostu asko ari gara sortzen, bazkide kopurua handitu egin da. Hurrengo hiru urtetan 90.000 miloitako inbertsioak egiteko asmoa dugu, beraz lanpostu asko sortuko da, bai Euskal Herrian eta baita hemendik kanpora ere.

- Zer egin dezake dendari txikiak Eroskiri aurre egiteko?

-Eroskik orain dela zortzi urte arte denda txikiak bakarrik zituen eta ondoren hipermerkatuak zabaldu ditugu. Beraz, gure hazkuntzaz

kaltetuak izan diren artean gure supermerkatu txikiak ere egon dira. Baina hala ere ez ditugu itxi, eraldatu eta espezializatu egin ditugu eta aurrera atera dira. Denda txikien irtenbidea ere hor egongo litzateke, euren esparruan hobekak izaten ahalegindu behar dute. Sortzen diren dendek profesionalak izan behar dute eta asoziazioaren bitartez beste denda batzuekin harremanetan egotea ere garrantzitsua da, asoziazioaren bitartez.

- Eroskik elikagai asko kanpotik ekartzen duela esaten da.

-Oso kritika entzuna da hori, baina datu batzuk falta zaizkio. Haragiaren esparruan adibidez: behar den haragitik, Euskal Herriak 3 pezetatik 1 produzitzen du eta guk E.Han erosten dugu 2 pezetatik 1. Beraz, behar dugunaren beste erdia kanpoan erostera behartuta gaude. Esnekietan ere, saltzen dugunaren erdia E.Hn erostea da. Orokorrean, 3 pezetatik 1, hemen erosten dugu.

● Maxira Arrasate eta inguruko jendea joaten da. Joan den urtean, 730.000 erosle izan ziren.

Familia ugariak, gero eta urriagoak

Maria Agirre

Gero eta zailagoa izaten da seme-alaba askotako familiak aurkitzea. Gaur egun gehienez bi seme-alaba izaten dira; familia ugaria izatearen erronka gutxi batzuk aukeratzen dute. Erdi txantxetan, familia ugariak desagertzeko arriskuan daudela esan daiteke. Hori dela eta, seme-alaba asko dituzten familia arrasatear batzuen etxeetara sartu gara, gaiaren inguruan galde-tu eta euren bizimoduan aztarka egin guran.

Larreategi-Mogilnicki eta Esparza-Alonso izan dira euren bizimodua kontatzera ausartu diren familiak. Euren ustez, familia ugariaren bizimoduak ez du zertan bitxia izan behar, antolaketa, lanen banaketa...sendi gutxiko etxe-etan ere badagoela uste dute eta. Gaur egun hala ere, zazpi edo hamaika seme-alabez osoturiko familia batek badu zer kontatu.

LARREATEGI-MOGILNICKI

Zazpi seme-alabek osatzen dute familia hau, lau mutil eta hiru neska dira. Nagusienak 32 urte ditu eta gazteenak 15. Adinari dagokionez, bost na-

E
txean beti izaten da norbait laguntzeko gertu”

gusienen artean bi edo hiru urtetako desberdintasuna dago. Gazteenak, berriz, beranduxeago etorri ziren, horregatik nagusienek bi horiek “bigarren belaunaldi-koak” direla esaten dute. Luisek eta Metxek, gurasoek, ezkondu zirenean erabaki zuten seme-alaba asko izatea. Sei izatea pentsatu zuten: “erabakia hartzean bizitzarako proiektua egin genuen, horregatik, ezkondu bezain laster 2,30 metrotako mahaia erosi genuen”.

Gurasoak bat datoz familia ugariak sakrifizioa eta gauza askori ezetz esatea eskatzen duela azpimarratzean, baina hala aukeratu ezker, gustora egiten den zerbat ei da: “argi daukagu zer dagoen lehenengo eta zer bigarren. Gurean elikadura eta heziketari ematen diogu garrantzia eta beste gauzak ahal izanez gero egiten ditugu. Egia da guk beste pentsatzeko era bat duguna. Oraingo gizartean denetik edukitzea da garrantzitsuena, oportetara joatea, kotxe ederra izatea...kontsumismo handia dago eta jakina, era horretan zaila da seme-alaba asko izatea. Horrek ez du esan nahi eragozpenik ez dagoenik, baina familia handia ez izateko arrazoi ekonomikoak jartzea batzuetan aitzakia izaten da”.

Familia ugaria izateak eragozpenak baino abantaila gehiago dituela uste dutenez, seme-alabak ere pozik daude: “Nolabait beti laguntza izaten dugu. Laguntza behar dugunean etxean beti izaten da norbait laguntzeko gertu”.

Etxeko lanak egiteko antolaketak ez du misterio handi-



Ezkerretik eskumara: Asier (23 urte), Luis eta Mertxe (gurasoak), Roman (28 urte), Miren (15 urte), Arantza (30 urte) eta Miren (17 urte). Falta direnak: Eduardo (32 urte) eta Mikel (25 urte)



Eskerretik eskumara: Enrique (19 urte), Uxue (16 urte), Patricia (21 urte), Elena (13 urte), Alvaro (22 urte), Borja (11 urte), Arantza eta Pedro Mari gurasoak, Gonzalo (9 urte), Xabier (17 urte), Amaia (25 urte), Virginia (23 urte) eta Irene (7 urte).

rik, etxe askotan bezala Larreategitarrenean ere bakoitzak bere ohea egin eta bere gauzak jasotzen ditu: "Bakoitzak, duen denbora librearen araber, ahal duena egiten du eta beste etxe batzutan bezala, batzuk beste batzuk baino gehiago egiten dute eurenean ere. Asteaz zehar zazpi bizi gara etxean eta amak betidanik etxetik kanpo lan egin duenez, badakigu etxeko lanak egitea guztion lana dela". Lanak egiteko ez baina telebista katea aukeratzeko batzutan izaten dira eztabaida txiki batzuk. Horregatik, arau bat jarria dute: "TBa managailua duenak botorea dauka, baina jakina aitzak zertxobait gehiago". Abantailak TB katea aukeratzekoan eta nagusien esanetan, gazteenek ere badituzte hainbat abantaila: "guk zubi egin dugu eta bidea ireki diegu. Orain guri utzi ez ziguten gauzak egiten uzten diete gurasoek gazteenei".

Mertxe eta Luis bereziki arduratu dira seme-alabei heziketa emateaz eta orain beren kasa bizi izateko gai izan dai-

tezen nahi dute. Atzean geratu dira guztiak ume zireneko urte haiek eta atzean hara eta hona ibiltzeko erabiltzen zuten Seat 850 markako auto zaharra ere: "Xelebrea izaten zen norabait joaten ginenean gu ikustea; noizbait bederatzik lagun ere sartu ginen auto zahar hartan. Ez dakigu zelan ez ziguten isunen bat ipini!".

ESPARZA-ALONSO

Familia hamaika seme-alabak osatzen dutela eta, ezagunak dira Esparzatarrak Arrasaten. Doazen tokira doazela, ez dira oharkabeen pasatzen: "Guztiok batera norabait joaten garenean konturatzen gara jendeak harrিতa bezala begiratzen digula eta noizbait seme-alaba guztiak gureak ote diren ere galdetu digute". Asko izateagatik istorio xelebrek pasa zaizkie, baina "etxean denok ezagutzen duzue elkar?" bezalako ton-tokeriak ere entzun behar izan dituzte. Izarra dorrean dute etxebizitza. Etxea txikia dela aitortzen dute baina ondo antolatua dutenez, denak kabitzen

dira: gurasoak, sei neska eta bost mutilak.

Arantza eta Pedro Marik ere, hasieratik argi zuten familia ugaria osatuko zutena: "alde batetik umeak asko gus-tatzen zaizkigu, baina gainera, gure sinismenek eragina izan zuten erabakia hartzerakoan. Guk argi geneukan haurrak izateko oztoporik ez genuela jarriko".

Egunez egun aurrera irte-teko daukaten antolaketa ere ez da beste mundukoa. Bakoitzak bere ohea egiten du eta hortik aparte, denbora izanez gero laguntzen dute. Hori bai, etxean denek egiten dute lan. Bazkal ordua adibidez, eskola ezberdinetan dabiltzanez, bi txandatan antolatzen dute. "Baina afaldu denok batera eta afalostean tertulia txiki bat egiten dugu. Normalean sukaldetan jaten dugu, baina Holandan ikasten dauden hiru alabak datozenean egongelan zabaltzen dugu mahaia".

Arantzaren esanetan, "familia ugaria izateak sakrifizioa eskatzen du, horregatik, zaila da gaur egungo gizarte konsumistan haur asko izatea. Hala ere, ezer baino lehen bakoitza aske da nahi duen bizi-modua aukeratzeko".

Sakrifizioa eta ekonomia ondo gestionatzea; behar bada horrela irteten dute aurrera mota horretako familiek, jasotzen duten laguntza txikia izaten da eta: "eskoletako matrikuletan eta bidaiatzekoan deskonturen bat izaten dugu, baina oso gutxi izaten da. Seme-alabei dirua ondo administratzen, beharrezkoa zer den ulertzen eta gauzak konpartitzen irakatsi diegu, guzti hori beharrezkoa da eta." Baina hainbeste sakrifizioen ostean, poztasun handiak izkutatzen dira eta etxeko gutzientzat horiek garrantzitsua goak dira. Horregatik erreportai honetarako familiaren argakia utzi zigunean horrela esan zigun amak: "ederra da, ezta?".

Familia ugaria izateak sakrifizio handia eskatzen du.

Beldurra kentzeko

Aurreko zenbakian zure motorearen osasunari buruzko gogoeta egin genuen. Egin zenuen azterketa? Zer moduz testa? Non zaude?

Batazbestekotik behera bazaude, zorionekoa zu, baina orain arteko bideari eutsi egin beharko diozu. Baina batazbestekotik gora bazaude, neurri serioak hartu beharko dituzu zure motorearen egoera hobetzeko.

Aste honetako atalean hiru irtenbide proposatuko dizkizugu: bi historikoak eta gaur egungoa bestea. Ikusiko duzun moduan, ezberdintasun gutxi dago batetik bestera. Egizu kasu: irakurri... hausnartu... bete itzazu eta ezer hobetik aurkitzen baduzu, dei egizuzu.

I. EHUN URTE HARTZEKO JAKINTSU GREZIARREN AHOLKUAK

- 1.- Egunean bi orduz ibiltzea.
- 2.- Egardia denean bakarrik edatea, astiro, eta ura, jakina.
- 3.- Logurea bukatzen denean jekitzea.
- 4.- Gauero, gutxienez zazpi ordu lo egitea.
- 5.- Gosetutakoan jatea, baina beti presarik gabe.
- 6.- Beharrezkoa dena baino gehiago ez hitzegitea.
- 7.- Diruari gehiegizko estimaziorik ez izatea. Zerbitzari ona da, baina nagusi txarra.
- 8.- Pentsatzen denaren erdia besterik ez esatea.
- 9.- Gutxiago diskutitzea, arrazoiak izatearen segurantz dago-

enean baino ez.

- 10.- Ez ahaztu besteek zure beharra dutela baina seguru asko ez zaituztela kontutan izango.

II. TXINAKO OSASUN ETA BIZITZA LUZERAKO ELKARTEAREN AHOLKUAK

- 1.- Egizu ariketa fisikoa.
- 2.- Ez erori "plazereetan" neurri gain.
- 3.- Zortzi orduz bakarrik lan egin eta beste zortzi orduz lo.
- 4.- Ez urduri jarri eta ahaztu zure adina.
- 5.- Elikadura egokia eta ez gehiegizkoa.
- 6.- Beste edozein edari baino, ura edan gehiago.
- 7.- Arratsaldean, egin bazkalostekoa logureak bazaude.
- 8.- Egin barre edo irribarre, ahal duzun guztian eta ahal duzun guztia.
- 9.- Ahalegindu kanpoan bizi izaten.
- 10.- Gauzak ez apetro hartu.

III. BIHOTZKOAREN PREBENTZIOARAKO DEKALOGOA.

- 1.- Ariketa fisikoa sarri eta erregulartasunez egitea.
- 2.- Hartu atsedena eta erlajatu.
- 3.- Oporrak hartu eta gozatu (hemen jubilatuta eta pentsiodunek abantaila dute, "opor iraunkorrak" izaten dituzte eta).
- 4.- Lana eta elikadura, bakoitza bere aldetik zaindu, hau da, jaten ari zaren bitartean ez lanik egin (lehen aipatuta-

koentzat beste abantaila bat).


- 5.- Zaindu elikadura, zaindu pisua, kolesterola eta gluzemia (odoleko azukrea).
- 6.- Egunean zortzi bat orduz lo egin.
- 7.- Ohitura txarrak kontrolatu, erretzea, adibidez.
- 8.- Tentsioa kontrolatu.
- 9.- Aldian behin mediku-azterketa egin.
- 10.- Hartu arnasa behar den bezala.

Ikusten dugunez, berdin berdinak dira hiru aholkuroak, lehenetik azkenera

2.000 urte baino gehiago pasadela kontutan izan behar den arren; eta harri berean estropozu egiten dugu oraindik: sedentarismoa eta larregi jatea (pisu larregia eta loditasuna). Mesedez: ez zaitez astoa izan eta ikasi harria albora uzten.

Argi dago behar baino gehiago jan eta behar baino gutxiago mugitzen garena. Baina, zenbat kaloria erretzen dugu egunean? Badago jakiterik? Hurrengo atalean hori bilatzea proposatuko dizugu.

ATHLON, KOOP. E.



Arrasateko OSASUN GIDA

Datorren hilean berriz zuekin!!
Apunta zaitez 77 08 15 Tfnoan.

ZER NAHIAGO?

Agurtzane Garai Kili-Kolo jantzendakoa

- Zein kolore eramango da udazkenean? Marroia batez ere.
- Oraindik igertzen da "krisia"? Bai.
- Zer ez zenuke sekula jantziko? Kapela bat.
- Gona luzea ala motza? Luzea.
- Zapatak takoidunak edo lauak? Lauak.
- Lepoko zapiak erabiltzen dituzu? Bai, asko.
- Arrasateko jendea zer moduz jazten da? Erdizka, "sport" estiloa gehiegi erabiltzen da...
- Hatzazkalak margotzen dituzu? Ez.
- Azken ametsa? Uf! Aspaldian ez dut ametsik egiten.
- Zenbat hizkuntza dakizu? Bi besterik ez: eusker a eta gaztelera.
- Barruko erropa, txuria ala beltza? Txuria.
- Maritxuko jantzia prest daukazu? Ez, haurdun nago eta aurtan ez naiz jantziko.
- Maritxun, gizezkoak, pajaritaz ala korbatatz? Korbatatz.
- Edari konbinatu bat? Ez dut alkoholik edaten.
- Zer gosaltzen duzu? kafesnea eta ogia mantekila eta mermeladaz.
- Eguneko ordurik onena? Ordu bi t'erdiak.
- Zergatik? Ordu horretan dena jasota izaten dudalako eta lasai-lasai etxeko sofan eseritzen naizelako.
- Ekologiak kezkatzen zaitu? Bai.
- Egiten duzu zerbait horren alde? Egia esan, ez.
- Oihal bat? Kotoia.
- Zer izan nahi zenuen umetan? Andereñoa.
- Zein pelikulatako protagonista izan nahi zenuke? "Julia" pelikulako protagonista, Julia bera.
- Nola ikusten duzu zure burua 20 urte barru? Ez dut ikusten; orainaldian bakarrik pentsatzen dut.



LABURRAK

Liburuak erosteko diru-laguntza

Eusko Jaurlaritzak, 1.300.000 ptako dirulaguntza eman dio Arrasateko Udalari, liburuak eros ditzan. Liburuak Arrasateko liburudendetan erosi eta liburutegirako izango dira.

Kale Antzerkia

Datorren igandean, hilak 25, kale antzerkia izango da Arrasaten, "Txis Pun" taldearen eskutik. Antzerki hau, Erdu-AEKren matrikulazio kanpainaren barruan dago kokatua eta Sebero Altube plazan izango da ordubata aldera. Antzerki az gozatzeaz gain, gazta eta sagardoa banatuko da ikusleen artean.

Sexu berdintasuna

Datorren urriaren 6an, Hezkuntza eta Emakumearen Udal Sailek antolatuta, "Hezikidetza: Sexu-berdintasunerako hezkuntza" gaiaren inguruan hitzaldia izango da Monterronen arratsaldeko 7etan. Hizlariak, Zuriñe del Cedro eta Pilare Markuerkiaga izango dira.

Begoña lurrindegia

Drageria
Jostailuak
Opariak

Gipuzkoa Etorb. 33,
Musakola Auzoa,
Tfnoa: 79 03 73

ARTE LENIZ

koadro eta
moldurak

Leintzibar kalea, 4
ARRASATE Tfnoa: 79 37 64

OPARITZEKO GAUZAK

Mexiko, Guatemala, India eta Txinatik ekarriak




Ferrerias, 28-A. Tfnoa: 79 02 79 ARRASATE

UGARAN jatetxea

Claudio Merchan: "Rugby-a mundu berezia da"

Rugby-a kirol zaharra da Arrasaten, duela 25 urte jaio zen lehen taldea. Dena dela, rugby taldea urte batzutan desagertuta egon da taldea osatzeko nahiko jende ez zegoelako. Parentesi horren ondoren, talde berria osatzea lortu zuten zenbait lagunek eta horien artean Claudio Merchan (Kako) egon zen. Arrasateko Rugbyak gaur egun bizi duen egoera jakiteko Kakorekin egon gara berbetan.



"Kakok" seniorrak entrenatzen dituzte aukera izan dugu.

- Ze ezaugarri behar da Rugbyan jokatzeko?

- Horren ganean oso ideia okerra dago: behin eta berriz entzun dugu, rugbyan egiteko pertsona indartsua izan

behar dela. Baina egia esateko, rugby talde batean denetik dago. Indarra duen jendeak aurrean jokatu du, korrikan ondo egiten dutenek linean; honez gain, erresistentzia duen jendea behar izaten da eta baita trebeak direnak ere.

Kako, Josu eta Bittor dira rugby taldeetako entrenatzaileak; asteen bi bider izaten dituzte entremenduak.

Rugbya oso kirol osoa da eta mota guztietako jendea behar du.

DIRU-ARAZOAK

- Diru-arazoak ere badituzue, ezta?

- Alde batetik babesleen laguntza jasotzen dugu, Kajoi tabernak diru laguntza ematen digu eta Arrasate Kirolak materiala. Gero, Udaltetik Aukearen bitartez laguntza txiki bat jasotzen dugu. Baina hemen arazo bat daukagu, izan ere, Aukeak bertako bazkide ez direnei ez die laguntzarik ematen. Gure taldeko lagun gehienak ez dira bazkide, beraz, larehun mila pezetatik gorako laguntzatik bazkide ez garelako 340.000 pezetan kentzen badizkigute, pentsa zerekin geratzen garen.

- Rugbyko jokalaririk gatu handia du?

- Rugbya mundu berezia da, jokalaria bakoitzak bere fitxa eta erropa ordaintzen ditu, eta iaz fitxak 6.000 pezeta balio bazuen, aurten 11.000 pezeta balio du. Mutil bati diru mordo hori eskatzea oso gogorra denez, 7.000 pezeta eskatzen dizkiogu eta gainerakoa taldeak ordaintzen du. Dirua lortzeko errifak, kamisetak, txiskeroak... abar saldu beharrean aurkitzen da taldea. Eta askotan horrela ibiltzea guretzat gogorra izan arren, ez dugu beste erremediorik.

- Zenbat jende dabil Arrasateko rugby taldean?

- Une honetan 3 talde daude: seniorrak, jubenilak eta neskak. Guztira 80 bat lagun gaude.

- Ze mailatan jokatzten duzue?

- Neskak euskal ligan ari dira jokatzten eta jubenilak ere bai. Seniorrek euskal ligan jokatzten zuten baina iaz jeltsi egin ziren eta aurten berriz igo egin dute euskal ligara.

- Zelan gertatu da igoera?

- Estatuko ligan berregituraketa bat egin da. Lehen ohorezko liga, liga nazionala eta lurraldezkoak zeuden. Orain lurraldeko liga beste 4 azpitaldetan banatu da; talde batzuk nazionalera igo direnez, guk Euskal ligara igo

CE ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak**

Olarte kalea, 47 beheka Tfnoak: 79 22 55 79 14 25



HIZKUNTZ ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE

PENALTIAK

• Judo taldekoak ere hasi dira lanean ikasurtearekin batera. Klaseak beti bezala Musakolako kiroldegian izango dira eta ordutegia iazko bera: Astearte eta ostegunetan 13 urtetik beherakoek 7etatik 8etara izango dituzte klaseak eta 14 urtetik gorakoek 8etatik 9.30etara. Judoa ikasi nahi duzuenoi, izenemateko epea zabalik dagoela gogoratuko dizuegu.

• Irailaren 24an "Txanton-boys" Rugby IV. txapelketa. Arrasateko jokalaria gazte eta zaharrek izango ditugu nor baino nor. Neurketa Garagartzako zelaiaren jokatu da, arratsaldeko 5etatik aurrera.



Saskibaloia taldekoek kantxa honetan jokatu dute hemendik aurrera.

Urbina-maltzaga taldearen aurkezpena

Urbina-Maltzaga saskibaloia taldeak aurkezpen ofiziala egingo du ostiralean. Arrasateko taldeak Zaragozaren aurka neurtuko ditu indarrak, arratsaldeko 7etan. Ekitaldiak saskibaloia talde guztiak aurkezteko balio izango du. Iturripeko zurezko kantxa berria egin ahal izango dute aurkezpena. 1215 metro karratuko kantxa berria Danimarkatik eka-

rritako pago-egurrez estali dute; merkatuan dagoen onena ei da eta denboraren joan etorria ondoen jasaten duena. Zoruan egurrezko parketa jartzeko 11 milioi pezetako gastua egin du Udalak. Era berean, esan beharra dago, mota horretako kantxak ez duela mantenimendu berezirik eskatzen, egunero mopa bustia pasatuz gero, nahikoa izaten da. Beraz, Arrasate-

ko saskibaloia taldeak dena prest dauka, urriaren 2an hasiko den denboraldiaren aurrean.

Bestalde, saskibaloia taldeak abonatu kanpaina ere jarri du abian. Bi abonatu mota daude: seniorren abonak 5.000 pta. balioko du eta 18 urtez beherakoek 3.000 pta. ordaindu beharko dute. Infantilek, berriz, dohainik sartzeko aukera izango dute.

Orain ARRASATEN...

egizabal

Oinetakoak - Poltsak

Ferrerias,9

Maria Jesus Vazquez

Artista autodidakta

Duela 10 urte hasi zen eskulanean munduan murgiltzen baina nahiago izan zuen bere kontura ikasten jarraitzea. Gaur egun eskulanak egiten irakasten dihardu eta momentuotan Monterronen daude ikusgai bere ikasleek egindako lanak.

— Zerk eraman zintuen eskulanean mundura?

— Egia esan, kasualitatez egin nuen ikastaro batek eraman ninduen afizio edo lanbide honetara. Ikastaro hartan bi teknika ikasi nituen eta goroztik, nire kontu ikasten aritu naiz, "autodidakta" naiz. Etxean zenbait eskulan eginez eta liburuak irakurriz ikasi dut batez ere.

— Eta gainontzeko teknikak nola ikasi dituzu?

— Esperimentuak eginez. Teknika berriak asmatu ditudala esan daiteke. Adibidez, nire etxean ez dut laberik, beraz, labea erabili gabe eta liburuetatik ikasitako zenbait teknika aplikatuz, emaitz berberak lortu ditut.

— Noiztik irakasten?

— Orain 5 edo 6 urte hasi nintzen. Erguingo jubilatuen egoitzan eta Abaroan ematen ditut klaseak eta baita nire etxean partikularrei ere. Momentuotan Monterronen



dagoen erakusketa nire etxean ikasten duten emakumeena da, ez jubilatuen.

— Jendeak estimatzen dituzte eskulan hauek?

— Ez dut uste. Dekorazio dendetako irudi eta objektuak oso garestiak izaten dira eta objektu hauen prezioagatik galdetzen denean bakarrik konturatzen da eskulan hauek daukaten baloreaz, baina bestela, jendeak ez ditu estimatzen norbere kasa egindako eskulanak. Dena dela, gauza bat esan beharra daukat: askotan sartzen naiz opari dendetara begiratzera eta egia esan, aurkitu izan ditut guk egiten ditugun eskulanak baino

kaxkarragoak, sekulako prezioetan saltzen dira gainera.

— Ikasleon maila hobetuz doa?

— Bai, izugarri gainera. Urtez urte, askoz kalitate hobeko lanak egiten dituzte ikasleek. Erakusketa honetan kalitate oneko gauzak erakusten saiatu naiz, hau da, objektu, irudi edo koadro pila bat erakustea baino, nahiago izan dut gauza gutxi baina onak erakustea, koloreztatutako estainoaz margotutako koadroak, adibidez.

— Zer erakusten diezue zure ikasleei?

— Denetik; egurra lan-

etzen, marmolinazko irudiak margotzen, estainoa erabiltzen, kristalean pintura ematen, oihalen gainean margotzen...orain mosaikoak lantzen hasi nahi dut. Baina eskulanetarako materiala oso garestia da eta mosaikoena, are gehiago. Beraz, mosaikoak landu nahi dituen talde bat osatzen bada, errezagoa izango da, gastuak banatu egingo ditugula eta.

— Badirudi gero eta afizio handiagoa dagoela eskulanean mundu honetan. Somatzen duzu horrelakorik?

— Bai, oso afizio handia dago, baina baita arazo handi bat ere. Esan dudan bezala, eskulanean mundu hau nahiko garestia da eta edozeinek ez dauka gauza hauetan gastatzeko dirurik, gazteek adibidez. Niri gazte pila bat etorri zaizkit erakusketara eskulanak egiten ikasi nahi dutela esanez, baina jakina, ez dute dirurik.

Horregatik lagun bat eta biok udaletxera joan ginen lokal baten eta diru laguntza eske, baina ez ziguten ezer ere eman: Musika taldeentzako, taila taldeentzako eta beste hainbatentzat izaten dute, bada dirurik! Horren afizio handia egonik, ez dira konturatzen. Nire ustez, Arrasaten betebako hutsune bat da hori.

.....

“Opari dendetan aurkitu izan dituzte guk egiten ditugun eskulanak baino kaxkarragoak”



- Garbitasun orokorraketa mantenimentua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

San Juan, 14 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORATZA





4 urterekin instrumentuak jotzen hasten dira.

Etorkizuneko "Mozart"ak

Hor dituzue etorkizuneko "Mozart"ak, Arrasate Musikalen ikasten hasi berri diren 4 eta 7 urte bitarteko umeak.

ESPERIENTZIA BERRIA

Orain arte Euskal Herriko musika eskoletan, 2., 3. eta 4. mailak bakarrik eman zitezkeen, hau da, 8 urtetik gorako ikasleek bakarrik zuten musika ikasketak egiteko aukeran. Duela 4 urte Eusko Jaurlaritzak baimen hau emateko asmoaren berri eman zuenean, Arrasate Musikal lanean hasi zen Eusko Jaurlaritzak bideratutako musika ikastaro berezietara irakasleak bialduz eta orain, baimen hori lortu ondoren, gogoz eta ilusioz ekin diote lan gogor horri.

Marta Izagirre eta Eli Auzmendi arduratzen dira

gaztetxo hauei klaseak emateaz.

ESKOLA DIBERTIGARRIAK

3 talde sortu dira: horietako bi 4 eta 5 urteko haurrekin osatu dituzte eta 6 urteko gaztetxoekin bestea. Astean bi orduz biltzen dira eta Lengoiaia Musikala eta instrumentuak lantzen dituzte. Eskola orduetan, abestien bidez ahotsa landu, dantzen bitartez erritmoa hartzen lagundu eta perkusiozko instrumentuak jotzen dituzte, Marta Izagirrek dioten bezala, "musikarekiko sentsibilizatzea da gure helburua". Bestalde, Lengoiaia Musikaleko klaseak, "Aurreinstrumentuko" klaseekin tartekatzen dituzte bibolina eta pianoa landuz.

Lehen maila horrek 3 urteko iraupena du, hau da, haurrek 8 urte bete arte.

Adin horretara heltzen direnean, solfeoko klaseak hasiko dituzte.

6 GELA GEHIAGO

Jose Ramon Vitoriak adierazi digunez, akademian zenbait berrikuntza egiteko ere aprobetxatu dituzte udako oporrak. 6 gela berri egin dituzte eta baita beste areto handi bat ere. Bestalde, akademia guztia margotu egin dute eta sarreran zegoen kabina, kendu egin dute eta alboko gelan egokitu.

Matrikulazioari dagokionez, aurtun 120 matrikula berri egin dira. Gaur egun, 600 bat ikasle daude akademian eta 1200 matrikula guztira. Arrasate Musikaleko arduradunak oso pozik azaldu dira kurtso hasieraren martxarekin eta lengoiaia musikaleko lehen maila honek izan duen harrera onarekin.

LABURRAK


Gazte Bulegotik igaro direnak

Jarraian doazkizue Gazteentzako Informazio Bulegoan ekainean, abuztuan eta irailean zehar egindako kontsulten datuak.

Guztira 1.685 kontsulta izan dira eta honako gaietan banatu dira:

- **Astialdia:** 860 - %51.04
- **Hezkuntza** (ikasketak, ikastaroak, bekak): 337 - % 19.09
- **Karnetak** (Gazte Txartela, ikasle txartela, kanping, garraioa...): 169 - %10.03
- **Objezioa:** 79 - %4.69
- **Lanpostuak:** 44 - % 2.61
- **Kultur ekintzak - jaiak:** 31 - %1.84
- **Gazte taldeak:** 21 - %1.25
- **Atzerriko lana - au pair:** 8 - %0.48
- **Bibliografia:** 7 - %0.42.
- **Bestelakoak:** 128 - % 7.60.

Kontsulten %60a emakumezkoek egindakoak dira, %40a gizonezkoek. Gai nagusietan, astialdian eta hezkuntzan hain zuzen, emakumezkoek egindako kontsulten kopuruak bikoiztu egiten du gizonek egindakoa. Bi gaitan parekatuta daude: karnetak eta atzerriko lana. Hiru gaitan, gizonezkoen maiztasuna handiagoa da: objezioa, kultur ekintzak eta gazte taldeei buruz.



ERAIKUNTZAK

Olarte, 30 etxabea.
Tfnoa: 79 77 11
Faxa: 79 77 11
ARRASATE
Postakutxa: 118



JOSU
TXOKOLATEGIA
KAFETEGIA

Elkano, 25
ARRASATE
Tfnoa: 77 03 66



Garagartzako eskola, Ziriako Jauregi-Arraburu maixuaren ardurapean.

G

Arraburu maisuaren lana ere entzutetsua izan zen; neska-mutiko kuadrila handia izaten zuen bere kargu eta gero herriko eskolara ondoen prestatuta joaten zirenak ei ziren.

Erretratu hau orain 80 bat urte inguru ateratakoa da, ageri den moduan bandera eta guzti atera ere. Neskak eta mutilak aparte izaten ziren, eta hemen ere hala ageri dira. Balderari zabalik eusten dagoena mutikoa izango zen seguru asko.

garagartzako Eskola eza-guna izan zen garai batean, inguruetako ospetsuenetakoa izan zelako. Ziriako Jauregi-


Garagartzako hau Gipuzkoako guztiko Eskola Municipal bakarra zen, Udalak ordaindutakoa, beste guztiak "Nazionalak" izaten ziren eta.

Goitik eta ezkerretik lehen ezezaguna, **Maria Arana, Timotea Barrutia, Justa Bidaburu, Brigida Jauregi, Florentina Abarrategi, Justa Errarte, Frantziska Barrutia, Marzelina Heriz** eta **Mercedes Abarrategi.**

Bigarren ilaran, **Juana Markaide, Tomasa Ozaita, Juliana Uriarren,**

Bibiana Iria, Klara Abarrategi, Juanita Garate, Justina Garro, Luziana Abarrategi eta **Antonia Jauregi-Arraburu** (banderari eusten).


Hirugarrenean, **Basilisa Abarrategi, Pilar Loidi, Maria Zuazubiskar, Mari Paz Gorosabel, Pilar Uriarren, Ziriako Jauregi-Arraburu** maisua, **Antonia Zuazubiskar, Juakina Barrutia,** ezezaguna, **Ramona Zuazubiskar** eta **Marzela Abarrategi.**

ASOCIACION / ELKARTEA

 LIZARRA
 Doctor Bañez, 1 behean, San Andres auzoan
 ASTELEHENETIK OSTIRALERA ARTE
 Goizeko 9etatik 1a arte
 Tfnoa: 79 19 21

.....
ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA


J. Carlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64 ARRASATE

æek ERDU-ÆEK



ERDUNA
LATEAK
MEREZI
DU!

EUSKARAK
MEREZI DU!

æek

2,3 eta 5 ordutako ikastaroak

Alfabetatze eta EGA ikastaro bereziak, astean 2 egunez eta larunbatetan

MATRIKULATZEKO EPEA:

irailaren 28ra arte

INFORMAZIO GEHIAGO:

Garibai, 14 (Sindikatu etxea) 3. pisua.

☎: 77 03 69

Beka sistema

· AIPUA ·

"Borondatearen atzetik desioa egoten da; horrek bultza egin ezean, geldirik geratuko da"


JUDGE

· JEROGLIFIKOA ·



— Zer ekarri duzu entsaladarako?

· GURUTZEGRAMA ·



J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Iñaki, ARKOko lehen-dakaria. 8. Kateaz, lotu. 9. Hegal, bazter. 11. Era berezian. 14. Barazki arrunta. 15. (Ald.) Hitanoka. 16. Infusio mota. 17. Ihardun, ekin. 18. Hasuteskundeetan botatzeko kutxa. 19. Zein pertsona.

Bertikalak 1. Amaitu. 2. Eguzkiaren jainko egiptiar. 3. Irten, jalgi. 4. Emakume izena. 5. Biltzarre, asanblada. 6. Hondakin, hondar. 7. Rutenioa. 10. Zuzena ez dena, kiribildua. 12. Deus. 13. Zorrik gabe geratu. 17. Alkoholiko Anonimoak.

· HOROSKOPOA ·

Aries Ez ezazu horrenbeste jan, bestela ez zaizu Maritxuko trajea sartuko eta.

Taurus Kontuz poltsikoan duzun zuloaz, dirua galtzen zoaz kaletik.

Gemini Nola ligatu? zigarro bat aterra eta sua eskatu!

Cancer Kotxe gorria baduzu, aste honetan istripua izango duzu.

Leo Ez zaitez ezertaz kezkatu eta ondo bizi eta lo egin.

Virgo Ikasi duzu zure etxeko telefono zenbakia? Ordua zen, burugogor!

Libra Aukerak izaten dituzu, baina beldurrak gainditzen zaitu.

Scorpio Zure seme-alabek dirua lapurtzen dizute. Gorde kartera!

Sagitarium Euria egingo ote duen hainbestetan zerura begiratzeagatik tortikulisatzen behar zaizu.

Capricorn Ez itzazu aurpegiko granoak kendu, markaz beterik zaude.

Aquarius Ordua da erropa berriak erosteko. Modaz "out" zaude.

Piscis Zure genio biziak txunditurik uzten ditu inguruko guztiak.

BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

TELEBISTAREN TXOKOA

ATBn kolaboratzaileak behar ditugu


Adi! Aurkezle nahiz kolaboratzaile bila gabiltza "ATBtarrok". Sekula ez duzula programa bat zuzendu, aurkeztu edo proposatzeko gogorik izan? Tira, tira... gezurrik ez! Ideia-

ren bat baduzu edo programaren baten zure laguntza eskaini nahi baduzu (kontaktuak egiteko, elkarrizketak prestatzeko, gonbidatuak bilatzeko, auzule lanak egiteko, ideia berriak proposatzeko...), zure bila gabiltza. Zatoz lehen bait lehen

ATBra edo 770690 telefonora hotsegin. A! Eta momentuotan gure programazioan saio- ren bat falta dela uste baduzu eta zuk zeuk programa hori egin nahi izango bazenu, ez ahaztu munduko laguntza guztia eskainiko dizugula. Zatoz eta hitzegingo dugu!



KOMIKIA



PROGRAMAZIOA



PROGRAMAZIO BERRIA

Hona hemen urritik aurrera ATBn emitituko diren programak. Programa berriak, aurpegi berriak, sari berriak... irakurri, irakurri...!

Astelehenetan

20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak

21.30etan
Mondrasport Titu eta Iñaki-rekin.

Asteartetan

20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak

21.30etan
ATBketan Idoia Peñakobak aurkeztua. Afariak alde batera utzita, sekulako sariak egongo dira.

Asteazkenetan

20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak

21.30etan
"Pareak Jokuan" Jon Sarasuarekin edo "Bakarka" Aintzane Gardokirekin.

Bi saio hauek, asteazkenero txandakatuko dira.

Ostegunetan

20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak

21.30etan
"Ibilixan Dabilena": Eneko Arangurenek aurkeztu eta Ion Aldanondok produzitutako abentura-programa berria. Euskal Herriko abenturazale amorratuenak pasa dira gure plattotik.

Ostiraletan

19.00etan
Haurrentzako emanaldiak

19.45etan
Kukaratz Motel: Unai, Agustín eta Betirtzek egindako gazteentzako programa. Sari berri eta ikaragarriak.

20.30 eta 21.00etan

Berriak

21.30etan
Astebete Xabier Ibarzabalek aurkeztua: Asteazkeneko gertatutakoak sakonki aztertuko dira.

Igandetan

20.30etan
Mondragol Ixaro Zubillagak aurkeztua.

SOLUZIOAK

Lau tomate.
Jeroglifikoak:
17. AA.
7. Ru. 10. Bihur. 12. Ezer. 13. Kito.
Atera. 4. Nere. 5. Bazar. 6. Uztikin.
Bertikalak: 1. Akabatu. 2. Ra. 3.
19. Nor.
15. Hika. 16. Te. 17. Artu. 18. Urta.
atu. 9. Ertz. 11. Bereziki. 14. Aza.
Horizontalak: 1. Aramburu. 8. Kate-



HAURTOKO

Arrasate Pasealekua 4,
Tfnoa: 79 14 90
ARRASATE

"EDERTU"
ileapaindegia



San Andres auzoa
Tfnoa: 79 04 28

Hilbera
kafetegia

Uribarri Etorbidea
ARRASATE

Etxebizitzak

- **Garaje bat** alokagai Maixorren. 79 03 22tfno-
ra deitu.
- **Pertsona bat behar da** Donostian pisu bat kon-
partitzeko. Logela individuala. Tfnoa: 77 05
55.
- **Donostian ikasle pisu bat** osatzeko norbait
behar da. Tfnoa: 79 06 75. Saioa.
- **Pisu bat erosi edo alokatuko** nuke. Tfnoa:
79 73 05.
- **Garajea alokatzen da** J. Luis Iñarra paseale-
kuan. Tfnoa: 79 36 79.
- **Pisua salgai Hendaian.** Egongela-jangela, loge-
la, sukalde, komuna. 50m². 2 balkoi, apar-
kalekua. Prezioa: 420.000 Libera. Tfnoa: 07
33 59 20 88 90. Michelle.
- **Neska bat behar da** Donostian erdialdean pisu
bat konpartitzeko. Hilean 17.000 pta. izan-
go litzateke. Tfnoak: 79 69 63 / 71 45 52.
- **Bilboko erdialdeko pisu batean** pertsona
batentzako lekua daukagu. Tfnoa: 79 38 01.
- **Pisu alokatu batean** neska batentzako lekua
balego, interesatuko litzaidake. Tfnoa: (94)
616 74 46. Arratsaldeko 6'30etatik aurrera.
Sorkunde.

Etxebizitza alokagai, itsasoaren ondoan, Gra-
nadako itsasertz tropikalean. Merke. Tfnoa:
(958) 62 32 05. Candi.

- **Bilbon pisua osatzeko** pertsona baten bila gabil-
tza. Norbaitek komeni zaiola uste badu, dei-
tu dezala tfno. honetara: 79 57 46.
- **29 urteko gazte batek** Arrasaten logela bat
alokatuko luke pisu konpartitu batean. Tfnoa:
42 67 33. Deitu eguerditan.
- **Etxebizitza jantzia alokagai** Eskoriatzan. Dei
egin 79 87 26 Tfno zenbakira, arratsaldeko
6etatik aurrera.

Lana

- **Umeak zainduko nituzke.** Tfnoa: (945) 44 51
11.
- **Emakume bat etxeko lanak** egin eta umeak zain-
tzeko prest dago. Tfnoa: 79 60 18. M^o Car-
men.
- **Ingeleseko klaseak** ematen dira. Nagore.
Tfnoa: 79 15 62.
- **Klase partikularrak:** ingelesa eta euskara. Tfnoa:
79 21 56. Edurne.
- Pertsona nagusiak zaintzeko** esperientziadun
emakumea prest. Tfnoa: 77 04 60. Margari-
ta.
- **Andra euskaldun bat** garbiketarako egin edo/eta
umeak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 07 73.
- **OHOko klase partikularrak** ematen ditut kurso
osoan zehar. Esperientziaduna naiz. Tfnoa:
79 05 59. Oskar.
- **Neska langilea** umeak zaindu edo etxeko lanak
egiteko prest. Tfnoa: 79 89 56. Maite.
- **Larunbat arratsaldetan** "kostas"eko klase par-
tikularrak behar dira. Tfnoa: 79 93 52.
- **Ingeleseko klase partikularrak** ematen dira.
Profesionalitatea eta esperientzia zentro aka-
demikoan. Tfnoa: 79 28 98.
- **Maila guztietako ingelesezko klaseak** ematen
dira. Esperientzia zentro akademikoan. Tfnoa:
79 28 98.
- **Ingeleseko klaseak** ematen dira. Talde txikiak.,
maila guztiak. Tfnoa: 79 09 11.
- **OHOko klaseak ematen ditut** kurso osoan zehar
(zure etxean emateko prest nago). Tfnoa: 79
66 91. Gloria.
- **Klase partikularrak** emango nituzke: kontabili-
tatea (kosteak eta sozietateak), estatistika, OHO
eta BBB. Tfnoa: 77 04 82. Amparo.

Salerosketak

- **YAMAHA gitarra** eta gitarra gordetzeko salgai.
Prezio ona. Tfnoa: 77 03 69. Iñaki. 10etatik
12etara.
- **"ESTELLA" akordeoia salgai,** 120 bajurekin.
Tfnoak: 79 46 75 eta 79 23 36.
- **Negutegi edo inbernadero** bat saldu nahi nuke.
Tfnoa: 79 52 80.
- **"CANON EOS-650" argazki kamara** saltzen dut.
Prezio ezhinboean. "35-70 objektiboa" barne.
Tfnoa: 79 23 60. Niko.
- **la berria dagoen akordeoia** saltzen dut. 120 baxu.
Belta. Tfnoa: 79 80 91.
- **PUCH Condor ziklotorea salgai.** Egoera one-
an. Tfnoa: 79 66 92. Juan.
- **Akordeoi kromatikoa** saltzen dut. BIGINI mar-
kakoa eta 120 baxukoa. Tfnoa: 79 91 30. Nerea.
- **OPEL VECTRA (SS-AH) salgai.** 32.000 Km. ditu.
Tfnoa: 79 62 85.
- **Eskiatzeko ekipoa salgai:** 1,80m. etako DINAS-
TAR markako tablak. LOOK markako fijazio-
ak eta bastoiak. Prezioa: 15.000 pta. Intere-
satzen bazaizu dei egin 79 17 96 tfnora.
- **Salgai:** - PHILIPS telebista 20 hazbetekoa. - 2
radiador FAGOR programadoreaz. - Teklatu-
organoa LOWREY. Oso merke. Tfnoa: 79 82
47. Gauez.

Denetarik

- **Udan katu oinak** aurkitu nituen Erañan. Deitu
79 39 69 tfnora. Aner.
- **Lanegunetan Elgoibartik 3ak aldera** igarotzen
bazara, eta kotxean birentzako tokia baduzu,
deitu 79 32 56-ra. Patxi. (Gastuetan parte har-
tuko dugu).

Aste Gazte

Lana

• Gipuzkoako Foru Dipu-
tazioak, lanpostu hauen deial-
dia egin du. Bide, kanal eta
portuetako injenieriak (5 lan-
postu), eta Haur eta Gazteen
erdi mailako teknikaria (lan-
postu 1). Epea: urriak 5.

Bekak

• 94-95 ikasturtean uni-
bertsitate mailako ez diren
ikasketak egiteko bekak:
(OHO, BBB, UBI, LH...) Epea:
urriak 21.

• 94-95 ikasturtean uni-
bertsitate mailako eta goi-
mailako beste ikasketa batzuk
egiteko bekak. Epea: urriak
14.

• "Fundación Empresa
Pública"ren beka deialdia, 30
urteko beharlan esperien-
tzia gabeko lizentziatu nahiz
diplomatuak zuzenduenak. Epea:
urriak 7.

• "Guggenheim Bilbok"
graduondoko lau beka eskain-
tzen ditu, New Yorkeko Solo-
mon R. Guggenheim Museon.
Epea: urriak 17.

• "Pépinieres" bekak. Euro-
pa mailan, artista gazteei zuzen-
dutako bekak, arlo ezberdine-
tan (zinea, koreografia...) Epea:
azaroak 30.

Unibertsitaterako
Autobusak

• Donostiara zein Bilbora,

egunero joan etorri egin behar
duzuenok, gogoratu datorren
astelehenean irailaren 26an bile-
ra informatibo bat izango duzeu-
la Monterronen arratsaldeko
7etan.

Lehiaketak

• Urrietako U dalak "Antia
Literatur Saria" antolatuko du.
Ipuinak euskaraz idatziak izan
beharko dira. Maila ezberdinak.
Epea: irailak 29.

• "Zahartzaroari buruzko"
I. Argazki lehiaketa. E.Hko edo-
zeinek har dezake parte. Argaz-
kiak txuri-beltzean nahiz kolo-
reetan izan daitezke. Epea:
urriak 21.

"Lehen geure
burua aberasteko
eta janzteko
ikasten zen; gaur
egun inozoagoak
izateko besterik
ez da
estudiatzen".

PAKO ARISTI.
IDAZLEA.



Informazio gehiago:
GAZTE ZERBITZUA
Tfnoa: 77 00 65



CITROËN

Evasion

★ EURO RSCG



Automobiletan kontzeptu berria aurkezten du Citroënek: Citroën Evasión berria. Askatasunik handiena eskainiko dizun ibilgailua.

Mugitzeko askatasuna hirian: direkzio lagundua eta ikusgarritasun aparta, hiribarruko trafikoan arintasun osoz mugitu ahal izan zaitez.

Errepidean ere askatasuna. 2.0i eta 2.0i Turbo motoreak. 150CVtarainoko potentziak eta ezohizko itsas-kortasunak, ibilgailu familiar malgua edo auto azkar eta bizia gidatzeko aukera emango dizute.

Barrukaldean ere espazioa banatzeko askatasuna emango dizu; jarlekuak zure gustora biratu, kendu edo aldatu ahal izango dituzu, 2 edo 8 jarlekuren arte-

Agora Askatasuna!

ko aukerarekin. Atzekaldeko ate irristakorrak, kanbioaren palanka salpikaderoan eta eskuko frenoak gidariaren eskumakaldean.

Eta zure askatasuna babesteko, segurtasun gorena: air-baga, ABS-a, segurtasun uhalentzat pretentsoreak, egitura indartua, alboetako barrak eta atzekaldeko ardatz autodirekzionala*.

3 akabera maila ezberdinekin auzketzen den ibilgailu berria, aukeratzeko askatasun osoa izan dezazun.

Berreskura ezazu libre izateak dakarren sentsazio ederra.

Gidatu Citroën Evasión bat eta abia zaitez askatasunerantz... ..



Chapime Tailerrak

Araba etorbidea, z/g. Tfnoak: 79 06 57 eta 79 45 22. ARRASATE



CITROËN

*Bertsioen arabera ekipamendua

EZ DUZU PENTSATU ERE EGINO CITROËNEK ZUGATIK EGIN DEZAKEENA.

IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

ZURE AMETSA ORAIN...



%40ko beherapena
FAGOR modelo batzuetan

BAINU ERAKUSKETA

Zarugalde kalea, 52
ARRASATE
Tfnoa: 79 99 42

SUKALDE ERAKUSKETA

Udala Enparantza, z/g
ARRASATE
Tfnoa: 79 00 43

FAGOR